


## 2019an ezkontza-kopuruak behera egiten jarraitzen du Euskal AEn

**Senar ezkongabeen batez besteko adina 38 urte ingurukoa da, eta emazteena 35 urtetik gorakoa**

Aurten ere, gero eta ezkontza gutxiago dago, 2019an 7.471, aurreko urtean baino % 3,7 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Ezkontza heterosexualak, Euskal AEko egoiliarrenak, 7.265 izan dira, aurreko urtean baino 285 gutxiago.

Ezkontzeko adinak gora egiten jarraitu du 2019an; izan ere, gizonezko ezkongabeak batez beste 37,7 urterekin ezkondu ziren, eta emakumezkoak, berriz, 35,7 urterekin. Eustatek Ezkontzen Estatistika argitaratu zuenetik, adinik handienak dira. Azken 25 urteetara mugatzen bagara, senar-emazteen batez besteko adina 8,1 urte igo da, eta 2 urteko aldea egonkor mantendu da gizonen eta emakumeen artean.

### Lehen ezkontzako adina Euskal AEn, sexuaren arabera



Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Euskal AEko ezkontza-tasa ere gutxieneko historikora iritsi da, 3,2 ezkontza izan baitira mila biztanleko; kopuru hori Espainiakoa (‰ 3,5) baino txikiagoa da, eta Europar Batasuneko (27 herrialde) baino txikiagoa, zeinen azken datu eskuragarria, 2017koa, ‰ 4,4koa baitzen.

Euskal AEn bizi diren ezkontutakoen artean, 206 bikote homosexualak dira, 2018koak (208) baino apur bat gutxiago. 2012tik emakumeen arteko ezkontzak gizonen artekoak

baino gehiago izan dira, eta ezkontza homosexualen % 58,3 dira jada. Lurralde-banaketa denaz bezainbatean, 28 Araban jarri dira bizitzen, 64 Gipuzkoan, 98 Bizkaian eta 16 Euskal AEtik kanpo.

Aurreko urteetako ezkontza-hausturen ondorioz dibortziatu gehiago dagoenez, dibortziatuen ehunekoak gora egin du 2005. urtetik ezkontzetan: senargaien artean % 68,9, 1.044ko kopurura iritsita, eta emaztegaien artean % 62,6, 1.003ko kopururaino.

***2019ko ezkontzen % 87,2 zibilak izan ziren, eta ehuneko hori ia lauz biderkatu da 1990. urtearekin alderatuta***


Ezkontza zibilek gora egiten jarraitzen dute, eta hamar ezkontza heterosexualetatik ia 9 dira jadanik, aurreko urtean baino % 2,2 gehiago. 1990ean ezkontza zibilak ezkontza guztien % 23 baino ez ziren.

Bizilekuaren lurraldea kontuan hartzen badugu, Bizkaiak eta Gipuzkoak Euskal AE osoko portzentajeak baino handiagoak eta nahiko antzekoak dituzte: % 88 eta % 87,8, hurrenez hurren. Araba zifra horietatik urruntzen da, % 85,5ekin. Euskal AEtik kanpoko egoiliarren ezkontza zibilen kasuan, ehunekoa % 78,8raino jaisten da.

Ezkundu ondoren Euskal AEtik kanpo bizitzera doazen 369 bikoteen helmugarik gustukoenak aldameneko probintziak dira, hala nola Kantabria eta Nafarroa, baita Madril ere, erakarpen-gune handi gisa. Araban ezkontutako bikoteak Burgosen eta Errioxan daude, Madrilera batera; Bizkaikoak Kantabriara eta Madrilera doaz gehienbat, eta Gipuzkoakoak Nafarroara eta Madrilera.

***Ostiraletan izaniko ezkontzak larunbatetan izanikoak baino gehiago dira***

Ezkontza zibilen gorakada handiagatik, 2009tik aurrera ezkontza horien ia erdiak ostiraletan egiteagatik, eta erlijiosoen kopurua nabarmen jaisteagatik, 2017tik aurrera Euskal AEn ezkontza gehiago izan dira ostiraletan larunbatetan baino; 2019an proportzioa % 45,6 eta % 35,4 izan da, hurrenez hurren. Gipuzkoan bizilekua duten bikoteetan ez da horrelakorik gertatzen, nahiz eta oso gutxiagatik izan; izan ere, % 39,3 ostiraletan ezkontzen dira, eta % 40,2 larunbatetan. Araban ostiraletan egindako ezkontzak dira nagusi (% 52), eta larunbatekoak, berriz, % 34,2. Bizkaian ere handiagoa da ostiraletan egindako ezkontzen ehunekoa (% 49), baina larunbatetan egindakoen ehunekoa beste lurraldeetan baino txikiagoa da (% 31,8), ostegunetan egindakoen kopurua handiagoa baita.



### ***Sexu desberdineko pertsonen ezkontzen % 20,4tan, ezkontideetako batek, gutxienez, atzerriko nazionalitatea du***

Ezkontzaren nazionalitateari dagokionez, 1.485 ezkontzatan (ezkontza guztien % 20,4) ezkontideetako bat gutxienez atzeritarra izan da, aurreko urtearen aldean % 19ko igoera; ezkontza horien % 45,7tan emaztea da atzerriko nazionalitatea duena, % 20,6tan, senarra, eta gainerako % 33,7etan bi ezkontideak dira atzeritarrak.

Bikoteetan emakumeak bakarrik badu atzerriko nazionalitatea, % 72,6 Amerikako herrialde bati dagokio (batez ere, Kolonbia eta Nikaraguari), eta % 17,8k Europako nazionalitatea du (Errumania eta Ukraina nabarmentzen dira). Gizonak bakarrik badira atzerriko nazionalitatea dutenak, Amerikako herrialdeen artean banatzen da hura (% 38,2), non Argentina eta Kolonbia nabarmentzen diren, besteak beste, eta Europako artean (% 33,3), Portugalen batez ere.

Ezkontide biak atzeritarrak direlarik, gehienek nazionalitate amerikarra dute, baina ehunekoa handiagoa da emakumeen artean (% 70,7) gizonen artean baino (% 65,3). Nazionalitateko bigarren kontinentea Afrika da, gizonen % 19,8rekin eta emakumeen % 18,2rekin.

#### ***Informazio gehiagorako:***

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*  
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
 Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62